

# MITUSU

BIZKAIKO HAURRENTZAKO PROGRAMAZIO ESZENIKOA

PROGRAMACIÓN ESCÉNICA PARA NIÑOS Y NIÑAS DE BIZKAIA

Ciclo Tiempo Teatral 2023 *Antzerki Denboraldia*

## Material Pedagogikoa ESNA

*Dirulaguntzaileak / Patrocinan*



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURASAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

*Laguntzaileak / Colaboran*

*Asociada a / Bazkidea*



# *ESNA*

## UNITATE PEDAGOGIKOA

LH 3,4,5,6 (8-12 URTE)



\*Artaziak eginiko unitate pedagogikoa

# AURKIBIDEA

## 0. LIBURUAK, ARBELA ETA... ANTZERKIA

### 1. IKASGELAN IKERTZEN. Antzokira joan aurreko jarduerak.

Sarrera. Izotza apurtzen.

#### 1.1. Jarduera. Esperimentu fasea // GORUTZAK

- Hausnarketarako unea
- Gorputz itxuragabeak (*anitzak eta fantastikoak*)

#### 1.2. Jarduera Esperimentu fasea // MUGIMENDUAK

- Hausnarketarako unea
- *Gorputzak mugimenduan*

### 2. IKASGELATIK ANTZOKIRA. Obra eszeniko bat ikusteko esperientzia.

### 3. PUNTU ETA JARRAI. Antzokira joan ondorengo jarduerak.

3.1 Jarduera. *Esna* ikasgelan

3.2 Jarduera. Gorputz itxuragabeen inbasioa

3.3 Jarraituko du...



## ***0. LIBURUAK, ARBELA ETA... ANTZERKIA.***

Testu hau irakurtzen hasi bazara, ikasgelan lan egiteko orduan dituzun tresnak baino gehiago izango nahi zenituzkeen seinale.... Liburuak, arbela eta oraingoan...antzerkia eta dantza batera! Zergatik ez? Antzerkia tresna bikaina izan daiteke jakin-nahiak pizteko, beste begirada batzuk aurkitzeko eta gorputza ikasgelako lanaren ardatz bihurtzeko.

Hemendik egun batzuetara, **Esna** ikuskizuna ikustera joango zarete. Ikuskizun horretan, pertsonak beren gorputzekin edo irudimenarekin esperimentatzeko, rol desberdinak jokatzeko, munduarekin modu desberdinetan elkarrengaitzeko, harremanak ikertzeko eta probatzeko duten gaitasuna balioesten da.

Hezkuntza-unitate honek obrara hurbiltzen lagunduko dizu, eta ikasteko eta hunkitzeko arrazoiak emango dizkizun toki batera bidaiatzen lagunduko dizu.

### **1. IKASGELAN IKERTZEN. Antzokira bisita egin aurreko jarduerak.**

#### **Sarrera. Izotza apurtzen. *Hau ez da koilara bat (20min.)***


Objektuz betetako kutxa bat eraman ezazu ikasgelara. Objektu txikiak, edozein izan daitezke. Erraz aurkitzeko moduko objektuak proposatzen dizkizugu, hala nola torlojuak, azkoinak, malgukiak, zirrinolak, klipak.



Esan ikasgelan gaur ikerketa-lan txiki bat hasiko duzuela, eta hasteko kutxa hau erabili behar duzuela. Haien aurrean, ireki eta komentatu guztien artean barruan dagoena. Galdetu zer den objektu bakoitza, zertarako balio duen. Oso galdera sinpleak, begi-bistako erantzunak izango dituztenak.

Baina ariketa honen helburua ez da objektu bakoitza eta bere funtzioa ezagutzea, baizik eta zer beste funtzio imajina genezakeen pentsatzea. Zeregin horretarako, banatu folio bat ikasle bakoitzari, eta eskatu kutxako objektu bat hartzeko, begiratu gabe.

Ariketa hau objetuarekin marrazki bat egitean datza, objektua beste zerbaitetan bihurtuz; gauza desberdin bat funtzio desberdin batekin, hain zuzen ere. Horretarako, objektuaren forma berrinterpretatzeko ariketa bat egin beharko dute. Hemen dituzu inspirazio iturri izan daitezkeen adibide batzuk.



Irudimen apur batekin edozein objektu beste objektu bihur dezakegula egiaztatu dugu. Horrek esan nahi du gauzak ez direla modu bakar batekoak, baizik eta alda daitezkeela, desberdinak izan daitezkeela, funtzio eta esanahi ugari izan ditzaketela.

Zer gertatzen da orduan pertsonekin? Eta gurekin? Denok gara berdinak? Badago izateko modu bakarra? Nor erabakitzen du zer garen? Imajina dezakegu izateko beste modu bat? Bihur gaitezke nahi duguna?

**Esna** ikuskizunak ezberdinak izan gaitezkeela irudikatzen lagunduko digu jolasaren bidez. Baina pieza hau ikusi aurretik gure ikerketa <sup>1</sup>hasi behar dugu. Nor garen eta nor izan gintezkeen jakingo dugu, gure gorputzetan eta mugimenduetan oinarritutako ariketen bidez.

### 1.1 Dinamika. Esperimentu-fasea// GORPUTZAK (40min.)

- **Hausnarketarako unea**

Ikasgelan, bakoitza bere lekuan dagoela, eskatu ikasleei begiak ixteko eta bere gorputza irudikatzeke.


Imajinatu ispiluaren aurrean zaudela. Zer itxura duzu? Orain, pentsatu zure gorputza aldatzeko egiten dituzun keinu txiki horiek. Inkontzienteki egiten ditugunak ere bai; oin-puntetan jarri, altuago agertzeko, tripa sartu, muskulua atera, bekainak okertu edota muturrak jarri. Seguru gutako bakoitzak gure estrategia txikiak ditugula gure gorputzetik gustatzen ez zaiguna aldatzeko.

---

<sup>1</sup> Sortu karpeta partekatu bat ESNA IKERKETA tituluarekin. Unitateak aurrera egin ahala, gorde sortzen dituzun ikus-entzunezko material guztiak.

Kometatu denon artean imajinatutakoa eta umore pixka bat eman elkarrizketari. Elkarri entzunda, agian imajinatu ez genituen ekintzak deskubrituko ditugu, batzuk agian barregarriak iruditzen zaizkigu, beste batzuk apuntatuko ditugu hurrengoan probatzeko...

Ariketa honen helburua denok askotan bizi dugun esperientzia partekatzea da, eta, agian, ekintza horiek errepikatu egiten direla egiaztatuko dugu, gehienok antzeko gorputza izan nahi dugulako.



Ikasleekin partekatzeko galderak: Nola sentiarazten zaituzte keinu horiek? Zergatik nahi dugu denok antzeko gorputz bat eduki? Zer da edertasun-kanona? Beti izan da berdina? Gorputz guztiak berdinak al dira? Gorputza alda dezakezu? Zer arrazoi izan ditzakezu hori egiteko? Zergatik da positiboa gorputzak desberdinak izatea?

- **Gorputz itxuragabeak (anitzak eta fantastikoak)**

Gure gorputzak eraldatuko ditugu. Formetan proportzioak edo erregulartasunak bilatzeko ideia haustea da helburua. Gorputz ezberdinak bilatzen ditugu, arrotzak, ezinezko gorputzak...

Beharrezko materialak:

- zuen gorputza
- kristal bat, metakrilatoa, leiho bat, kristalezko ate bat.
- edozein tamainako eta formatako ispilua.
- argazki kamera/mugikorra.

Ariketa hau hauetako edozein estrategia erabiliz egin dezakezue:

1. Apoiatu, zanpatu, igurtzi aurpegia kristal baten, metakrilato baten edo leihoaren kontra.



2. Gure gorputza deformatu gure eskuekin, helduz, luzatuz edo estutuz.



3. Ispilu bat erabiliz ezinezko gorputza sortzea.



*...Beste estrategia batzuk bururatzen zaizkizue?*

Atera argazki bat lortu duzun gorputz deformatu bakoitzari, eta gorde ESNA IKERKETA karpeta partekatuan.

## **1.2 Dinamika. Esperimentu fasea // MUGIMENDUAK (50min.)**

- **Hausnarketarako unea.**

Dinamika hau ere hausnarketa-une batekin hasten da: horretarako, zuen arteko elkarrizketa bideratuko duen bideo honen esteka uzten dizuegu.

<https://www.youtube.com/watch?v=hzmXqkeDGfl>

Elkarrizketa gidatzeko galderak: *Zer iruditu zaizue bideoa? "Neska batek bezala korrika egitea" esaera erabiltzen duzue? Mutil bat bezala bat bezala korrika egitea? Zer uste duzue esan nahi duela? Gauza bera gertatzen da dantzarekin? Uste duzue neska batek bezala dantzatu daitekeela, mutil bat bezala? Nolakoa litzateke? Nola ken ditzakegu ikasitako, estereotipatutako eta hipersexualizatutako mugimendu horiek guztiak? (Nahi izanez gero, zutitu zaitezke eta aipatzen ari zareten mugimendu horiek irudikatu. Era berean, mugimendu horiekin bat datorren abesti bat aukeratu dezakezue, eta partekatzen dituzuen bitartean jarri)*

- **Gorputzak mugimenduan**

Mahaiak eta aulkiak bazteetu, mugitu ahal izateko espazio zabal bat sortzeko gelan. Eskatu ikasleei 3 edo 4 pertsonako taldeak egiteko. Talde bakoitzak 3 mugimendu pentsatu behar ditu. Mugimendu horiek pentsatzeko, jarraibide hau eman diezaizkiezu.

**3 mugimendu, bakoitza gorputzeko atal ezberdinekin kontaktuan jartzeko.**

**Adib.**

- 1. mugimendua: saiatu ukalondoa belaunarekin ukitzen**
- 2. mugimendua. Saiatu sudurra bizkarrarekin ukitzen**
- 3. mugimendua. Saiatu oina triparekin ukitzen.**


**Saiatu 3 mugimendu jarraian egiten, modu arinean.**

Talde bakoitzak probatutako mugimenduak lortzen dituzenean, biribilean jarrita, eta txandaka, talde bakoitzak bere mugimenduak egingo ditu, modu jarraituan. Lehen taldea amaitzen denean, bigarrena, ondoren hirugarrena, gelako ikasle guztiek amaitu arte.

Orain, jarri berriro hausnarketa-unean erabili duzuen abestia, eta egin berriro azken mugimendu hauen erronda. Bolondres batek koreografia osoa grabatuko du.

Amaitzeko, azken koreografia horren bideo grabatua proiektatu eta komentatu ikasleekin. Zertan ari zineten pentsatzen mugitzen zinetenean? Zer aldatzen da egiten ohituta gauden mugimenduekin alderatuta? Ikas dezakegu zerbait azken koreografia horretatik?





## 2. IKASGELATIK ANTZERKIRA. Obra eszeniko bat ikusteko esperientzia

Zuen ikerketaren lehen zatia, fase esperimentalak, amaitu da. Gorputzak aldatzea, beste modu batzuetara mugitzea... zer izan daitekeen esperimentatu duzue, abiapuntu on bat izan da garenon eta egiten dugunaren aniztasuna ulertzeko.

Hurrengo faseak antzokira egiten duzuen bisitarekin jarraitzen du. **Esna** pieza ikustera joango zarete. Hemen uzten dizuegu antzezlanaren sinopsi labur bat. Bertan, irudimena, azala, rolak, harremanak, ikertzea, jolastea, aurkitzea, probatzea eta bilatzea bezalako hitzak entzungo dituzue. Zein izango da haien proposamena? Zer ekarriko dio gure ikerketari? Prest zaudete ikustera joateko, ikasteko eta gozatzeko.

### Sinopsia

*Norbaitek beste bat dela irudikatzen du, bere larruan jartzeko ariketa egiten du, gero bizitako esperientziak aberastuta itzultzeko. Jolasaren bidez animalia, edo lorea, jostailua, ura edo haizea bera irudikatzen du. Mutil batek neska bat dela imajinatzen du, neska batek mutila dela amets egiten du. Beste neska bat konbentzituta dago mutila dela, harik eta neska dela konturatzen den arte; jaio zen unera itzultzen da, jaioberriaren ama dela imajinatzen du, gero amaren amona eta amonaren birramona, tximino bat dela imajinatzen duen arte. Ikertu, jolastu, lokastu egiten dira, bata eta bestea izateko gai direla ohartzen dira, ni izan naitekeen pertsona bat, bera eta zurekin, bat izatera behartuta egon gabe, bera eta zurekin.*

*Ikuskizun honek balioan jartzen du pertsonen beren gorputzekin edo irudimenarekin esperimentatzeko, rol desberdinak jokatuzko,*

*munduarekin modu desberdinetan elkar eragiteko, harremanetan arakatzeko, probatzeko eta bilatzeko duten gaitasuna. Azken batean, hainbat aukera ikertzeko eta horietan sakontzeko gaitasuna. Gizarte mesfidati batean balio hori aldarrikatzeko beharra ikusten dugu, dena presaka etiketatzeko joera baitu. Horregatik, errakuntzarako eta porroterako eskubidea eskatzen dugu, bizitza bere sakontasun osoan ulertu nahi badugu. Eta batez ere, arnasa eskaini nahi dugu.*



## **FICHA ARTÍSTICA**

**Autoría:** Marie de Jongh & DOOS Colectivo

**Dirección:** Jokin Oregi

**Coreografía:** Eva Guerrero

**Intérpretes:** Denis Martínez y Olaia Valle

**Música original:** Nerea Alberdi y David. S. Damián

Música grabada y mezclada en los estudios Blue Bayou

**Iluminación:** Arantza Heredia

**Técnica:** Edu Berja y Unai Barrio

**Mirada externa:** Ana Meabe

**Producción ejecutiva:** Jemima Cano y Pío Ortiz de Pinedo

**Comunicación:** Irene Zarrabeitia y Eider Zaballa

**Distribución:** a+ Soluciones Culturales

### 3. PUNTUA ETA JARRAITUA. Antzerkira egindako bisitaren osteko jarduerak.

Ikuskizuna ikusi ondoren elkarrizketa gidatzeko galderak.

- Gorputzei buruz: *Zer gorputz ikusten dira? Gorputz deformatuak ikusi ditugu? Gorputz berriak? Zein estrategia erabili dituzte? (argazkia flexoa piztuta duen gorputza; bi gorputz batera, beste gorputz batzuk imitatzea)*
- Mugimenduei buruz: *Nola mugitzen dira piezako gorputzak? Zer esan dezakegu beraien mugimenduetatik? Zer bihurtzen dira gorputz horiek?*



### 3.1. ESNA ikasgelan (50min.)

Antzerkitik material berezi bat berreskuratu dugu eta gelara ekarri dugu; buztin zuria<sup>2</sup> da.

Airean lehortzen den buztin zuria egokia da edozein eskulan azkar eta erraz egiteko. Modelatzeko materialik errazena eta lan egiteko erosoena da, eta azken fase honetan, sorkuntza-fasean, gure ikerketa-lanarekin amaitzeko lagunduko digu.

Orain arte gure gorputz eta mugimenduekin lan egin dugu. Gorputz ideal bat bilatzetik, arauarekin bat datorren gorputz bat bilatzetik, askotariko gorputzak, itxuragabeak, fantastikoak esperimintatu eta bistaratzera igaro gara.

Azken fase honetan material horrekin lan egingo dugu, eskuekin, zanpatuz, luzatuz, gehituz, kenduz gorputz fantastiko horietako batera iritsi arte. Bikoteka egingo dugun lana da. Bikote bakoitzak gorputz bat asmatu eta sortu behar du. Horretarako, antzerkian ikusi dugun pieza eta gure ikerketaren aurreko dinamikak hartuko ditugu kontuan. Elementu desberdinak dituzten gorputzak, gorputz zanpatuak, batean urtutako bi gorputz...


Gorputz berri hori eraikitzearekin batera, pentsatu norena/zer den. Pertsona al da? Animalia? Izakia? Nolakoa da? Zer Ez/Gaitasun ditu? Zer gustatzen zaio egitea? Zer ekarpen egin diezaieke elkarrekin bizi diren gainerako kideei?

Azken dinamika hori sorkuntza kolektibo gisa pentsatuko dugu. Bikote bakoitzak bere gorputza/eskultura sortuko du, eta, haren ondoan, fitxa tekniko bat gehituko du, gorputz hori ezagutzeko beharrezkoa den informazioarekin. Hona hemen lagungarri izan dakizukeen adibide bat.

---

<sup>2</sup> ariketa honetarako buztin zurizko 2 edo 3 bloke lortu behar dituzu. Ezin badituzu erabili, plastilinarekin ere lan egin dezakezue. Kasu honetan, saiatu plastilina zuria edo beltza bakarrik izan dadils, ariketa kolorean baino forman zentratu dadin.

## FITXA TEKNIKOA

Gorputzaren izena (itxuragabea, askotarikoa, zoragarria)	xxxxx
Deskribapena (tamaina, pisua, gorputzeko atalak...)	txikia da, 30 zm inguru neurtzen ditu, baina nahiko pisatzen du. 1,5kg inguru. bularrak eta sabelak, gorputz osoaren ia erdia hartzen dute.
Ezgaitasunak/trebetasunak (egin ditzakeen gauzak, egin ezin dituen gauzak, zailtasunez egiten dituen gauzak, modu berezian egiten dituen gauzak...)	astiro mugitzen da. Biguna eta leuna da. Beste gorputz batzuk elikatzeko gaitasuna du.
zer ematen die gainerako gorputzei?	Gorputz txikienei beroa eta janaria ematen die.
<b>Irudia</b>	

Gorputz guztiak beren fitxekin amaitu ondoren, eskolako gune batean pentsa dezakezue, erakustaldi gisa erakutsi ahal izateko. Pasilloko zorua, hall-eko mahai bat... Egun batzuk hor utzi gainerako ikasleek ezagutu ditzaten.



### 3.2. Gorputz itxuragabeen inbasioa: (40min.)

Marie de Jongh konpainiak eta DOOS Colectivo taldeak antzerkira eraman dute beren proposamena, norabide partekatu batean elkartu dira, ESNA posible bat egiteko, antzerki-zuzendaritzaren eta koreografiaren artean oinarrituta. Gurekin eta beste jende askorekin partekatu dute agertokian, dantzariekin, koreografiarekin eta mugimenduekin. Nola parteka genezake gure ikerketa? Nola irakats diezaiekegu besteei beste gorputz batzuen aukera?

Azken ekintza bat proposatzen dizuegu, Gorputz itxuragabeen inbasioa.

Berreskuratu ikerketaren dinamika ezberdinetan hartu dituzuen irudiak. Kristal edo ispiluekin gorputz itxuragabeak sortzen zenituztenak, edo ikasgelako Esna dinamikaren fitxa teknikoan sartzen zenituzten argazkiak (azken dinamika hori egin bazenuten). Inprimatu eta banatu ikasle bakoitzari berea. Gorputz deformeen inbasioak gorputz horiekin espazioak okupatzea suposatzen du eta, horrela, gorputz arrotz horiei ikusgarritasuna ematea.

Ikasle bakoitzak pentsatuko du irudi hori non jarriko duen eta zergatik. Banaka, taldeka edo gelako ikasle guztiek egin dezakete batera, ekimen kolektibo gisa.

Adibidez: Jarri nire gorputzeko argazkia publizitate aldizkari baten orrian beste gorputz batzuen ondoan. Etxean enmarkatua dudan argazki baten ondoan, jarri taldearen argazki guztiak eskolako gimnasioko hormetan. Ekintza egin ondoren, leku horretako irudiaren argazkia atera. Amaitzeko, proiektatu hartu dituzuen argazkiak eta partekatu zergatik aukeratu dituzuen leku horiek eta zer uste duzuen lortzen dela ekintza horrekin.



### 3.3 Jarraituko du

Ikerketan transexualitatearen gaia atera bada eta landu nahi baduzue, hemen uzten dizkizuegu zeregin handi horri ekiten lagun diezaguketen material batzuk.

- Naizen. Adingabe transexualen familien elkartea

<https://naizen.eus>

<https://naizen.eus/baliabideak>

- Transexualitatearen gaia jorratzen duten filmak

